e-HIZPIDE
EUSKALDUNTZE - ALFABETATZEAREN ALDIZKARIA

94. zenb.
XXXVII. URTEA
2019 URTARRILA-EKAINA

ISSN 2530-3287

Geure iturrietatik

Bitartekotza linguistikoa, konpetentzia berria

Iñaki Villoslada Fernández

HABE

i-villoslada@habe.eus

Bitartekotza linguistikoa (BL) boladan dago. BLa bitartekari batek burutzen duen hizkuntza-jarduera da, kode linguistiko –hizkuntza, aldaera edo erregistro– desberdinak darabiltzatenek elkar uler dezaten. Komunikazio-modu hori Europako Erreferentzia Marko Bateratuan (EEMB) jarduera integratzailetzat jo da, ekoizpena, harrera eta interakzioa (elkarrekintza) bateratzen dituelako. Artikulu honetan, bitartekotza profesionaletik bereizi ondoren, BL arrunt terminoaren erabilerara hurbildu da egilea, bigarren hizkuntzen, bereziki euskararen, irakaskuntzaren ikuspegitik.

Gako-hitzak
bitartekotza linguistikoa, eleaniztasuna, Europako Erreferentzia Marko Bateratua (EEMB), gaitasun komunikatiboa, hizkuntza-gela

1. SARRERA

Bitartekotza linguistikoa (BL) deitu zaio komunikazio-modu bati zeinaren bidez bitartekari batek elkar-ulertzea ahalbidetzen duen. Gaur egun, hari buruz uste bat zabaltzen ari da: kode desberdinak erabiltzen dituzten bi pertsonak elkar uler dezaten hirugarren batek abiarazten dituen zereginak, jardunak eta estrategiak gaitasun berezi bat –bitartekotzako konpetentzia– garatuz ikas eta irakats daitezkeela. Europako Kontseiluak adierazi zuen BLa hizkuntza-aniztasuna sustatzeko baliagarria zela; halere, ikerketa gutxi dago oraindik komunikazio-moduari buruz, eta daudenak ez dira guztiz sistematikoak Trovatok (2015) egiaztatu duenez:

> *La escasez de investigaciones y estudios sistemáticos sobre Mediación lingüística representa la causa por la que este campo de estudio está lejos de haber alcanzado su madurez científica en el marco de la Lingüística Aplicada y de la Didáctica de Lenguas Extranjeras* (19 or.).

Gauzak horrela, ikerketa horiek guztiek beren bidea egin bitartean, Europako Erreferentzia Marko Bateratua (EEMB) hartu dugu erreferente nagusitzat artikulu honetan, eta BLaren definiziora saiatu gara hurbiltzen, bitartekotza arruntean ardaztuz hain zuzen, haren garrantziaz testuinguru eleaniztunetan zerbait esan, eta bigarren hizkuntzen irakaskuntzako gelan izan dezakeen tokiaz hausnartu dugu jarraian; bukatzeko, ondorio batzuk atera ditugu, batez ere helduen euskararen irakaskuntza ikusmiran izanik.

2. BITARTEKOTZA LINGUISTIKOA

Lehen adierazi bezala, BLa kode linguistiko desberdinak erabiltzen dituzten pertsonen arteko komunikazioa posible egiten duen jarduera da. Bitartekotza-jarduerak idatzizkoak zein ahozkoak izan daitezke, eta garrantzi handiko zeregina dute gure gizarteetako hizkuntz jardueretan, hainbestekoa ezen H2ren eskurapenaren estadio goiztiarretan abiaraztea komeni den EEMBren arabera (2005, 24 or.): "ezagutzaren bat badutenek, txikia izan arren, lagungarri moduan erabil dezakete, hizkuntza bateraturik ez duten eta, beraz, elkarrekin komunikatzeko ahalmenik ez duten gizabanakoen artean bitartekotza-lanak egiteko".

Hasieran interprete-itzultzaileen lana izendatzeko hiperonimo gisa erabili zen arren, gaur egun BL terminoak hiztun arruntaren eremura salto egin du (baita bigarren hizkuntzen irakaskuntzara ere). Horrenbestez, lan honetan alde batera utzi dugu bitartekotza profesionala[1] eta arruntaz jardungo dugu hemendik aurrera.

2.1. BL ARRUNTA

Parte-hartzaileak aztertuta, BL arruntean protagonismo nagusia bitartekariak du. Elebiduna da (gutxienez) hizkuntzen arteko bitartekotzan (interlinguistikoa) eta hizkuntza bereko aldaera edo erregistro desberdinak menderatzen dituena hizkuntzaren barnekoan (intralinguistikoan). Bi-bietan helburua elkar-ulertzea erraztea da, harreman linguistikoa posible egitea testuinguru (ele)aniztun batean, komunikaziorako dauden oztopoak gainditzeko. Funtsean, bitartekariak ez du bere esanahiak aditzera emateko ardurarik hartzen; bere ardura da bitartekari gisa jardutea soilik (EEMB, 2005, 110. or.).

Eginkizunaren ikuspegitik, hizkuntz arloko bitartekotza-jardueretan testu bat birprozesatu egiten da. Horrenbestez, itzulpenak edo interpretazioak, parafrasiak, laburpenak edo oharrak hartzeak bitartekotza-jarduerak dira. Haren osagaiei gagozkiela, BLa integratzailea da, harrerako, ekoizpeneko eta interakzioko jarduerak (beste hiru komunikazio-moduak) bateratzen dituelako. Diagrama honetan antzeman dakioke komunikazio-moduen arteko harremanari:

1. irudia. Iturria: Markoaren Ale Osagarria (2018, 32. or.)



Esandakoa laburbilduz, bitartekotza-jarduera mota guztiak (intra eta interlinguistikoa, arrunta, ahozkoa eta idatzizkoa) barne hartzen dituen definizio bat –bitartekotzaren erlazio-alderdia zein testuala kontuan hartzen dituena– hauxe izan daiteke: idatzizko edo ahozko jatorrizko testu baten birformulatzea, idatziz edo ahoz, bitartekari batek burututakoa hirugarren batentzat edo gehiagorentzat ez du(t)enean irispide zuzena testu hartara[2].

[1] 2018an, bitartekari profesionalen (interprete-itzultzaileak) konpetentziak C2 mailatik gora daudela adierazi zuen Markoaren Ale Osagarriak, eta zazpigarren maila hori markotik kanpo utzi.
[2] Definizio osoago bat Costek eta Cavallik (2015, 62) eskaini zuten: bitartekotza da, *inter alia*, (testu bat) birformulatzea, transkodetzea, linguistikoki edota semiotikoki egokitzea hizkuntza berean edo hizkuntza

2.2. ADIBIDEAK ETA ESKEMA

Elkarri gero eta lotuago dauden gaur egungo gizarteetan, bitartekotza-jarduerak aniztuz doaz, eta kode bera partekatzen ez duten pertsonen arteko elkarrekintzak ugaritzen ari dira hainbat arrazoirengatik: turismoa, immigrazioa, globalizazioa, sare sozialak, merkataritza-trukeak…; beraz, BLaren adibideak topatzea gero eta errazagoa izango da, eta pertsona arruntak (elebidunak) bere burua bitartekari moduan aritzeko gero eta egokiera gehiago izango du. Gauzak horrela, oso urruti ez dugu zertan joan jardueraren adibideekin topo egiteko. Hori frogatzeko, adibide sorta bat bilatu dugu gure testuinguru hurbilenean, Euskal Herrian, eta erakutsi maiz jarduten dugula bitartekari gisa euskaldunok hizkuntzaren ohiko domeinuetan (etxea, eskola, lana, aisia). Euskaldun batek burutu ohi dituen bitartekotzako jarduerak dira zerrenda honetan azaltzen diren guztiak:

- Guraso euskaldun batek haren bikotekide erdaldunari edo beste guraso bati ikastolako ohar bat ahoz itzultzea.
- Seme edo alaba txikiari medikuak gaztelaniaz esandakoak bere guraso batek euskaraz ahoz azaltzea EAEko ospitale bateko larrialdi-zerbitzuan // Farmazialari euskaldunak medikamendu baten eskuorrian (gaztelaniaz) jarritakoa azaltzea bezero euskaldunari.
- Euskal kanta baten adiera azaltzea lagun erdaldun bati, edo bertso saio batean kantatutakoak (bitartekotza kulturala ere egiten delarik).
- Euskal Administrazioko langile euskaldun batek lankide erdaldunari herritar batek euskaraz idatzitako eskari baten nondik norakoa azaltzea.
- Hizkuntza batean jasotako mezu telefoniko bat ohar batean apuntatzea beste hizkuntzan lankide batentzat zein etxeko batentzat.
- Iparraldeko euskaldun bati laguntzea Hegoaldean edo Hegoaldeko euskaldun bati Iparraldean, elebakarrekiko elkarrekintzetan (bitartekotza kulturala ere egiten delarik kasu batzuetan).
- Ingelesez dakien euskaldunak bitartekotza egitea lagun edo familiarteko batentzat bidaia turistiko batean. Edo ingelesezko testuak argitzea eremu profesionalean, besteak beste.
- Euskalki batean esandakoa aldaera hori aditzeko arazoak dituen beste euskaldun bati argitzea // Euskara ikasten ari denari euskaldun zahar batek azkar esandako zerbait ulertaraztea.
- (…)

Adibide horiek aintzat hartuta, jarduera baten eskema hauxe izan daiteke:

2. irudia. Jardueraren eskema: joaneko ibilbidea.



Eta jarduerak elkarrekintza barne hartzen duenean, itzuliko ibilbidea horrela adieraz daiteke:

batetik bestera, idatzitik ahozkora aldatuz edo alderantziz, generoak aldatuz, testuak edo beste errepresentazio-modu batzuk konbinatuz, edo inguruko baliabideak – giza baliabideak edo teknikoak– erabiliz.

3. irudia. Jardueraren eskema: bueltako ibilbidea



BLaren definizioa eman dugu, adibideak eta eskemak eta bitartekotza jarduera integratzaile gisa aurkeztu ere bai. Honezkero, eduki dezakegu BLaren ideia orokor bat. Edonola, bigarren hizkuntzen irakaskuntzan har dezakeen tokiaz jardun aurretik, haren garrantziaz zerbait esan beharko litzateke ulertzera iristeko zergatik azaldu den hain modu nabarmenean azkenaldi honetan bigarren hizkuntzen irakaskuntzaren arloan: eleaniztasuna da gako argigarria.

3. BITARTEKOTZA-JARDUERAK ETA ELEANIZTASUNA

Bitartekotza-jarduerek duten *izen ona* egoera linguistiko aniztunen goresmenean funtsatzen da. Izan ere, testuinguru eleaniztunak (multilingueak) ondorio onuragarriak ditu gizabanakoarentzat zein gizartearentzat, eta halaxe adierazi zuen Europako Kontseiluak; gizabanakoak gizarte eragileak dira, eta, horrenbestez, bitartekotza-jardueren hanpadurak hizkuntzen erabilera sozialaren aukeren gaineko ikuspegi politiko zein ideologiko baikor batean hartzen du oinarri: bitartekotzako jarduerek kulturen arteko elkarrizketa sustatu, eta herritartasun demokratikoa eta kohesio soziala bultzatzen dute Europako Kontseiluko Ministroen Batzordearen iritziz.

Pertsona eleaniztunaren (edo kode desberdinak erabil ditzakeenaren) komunikazio gaitasuna antolatzen den moduari buruzko hausnarra ere eskaini da Markoan, eta norbanako-mailan barneko bitartekotza bat dagoela iradoki (azpimarra gurea da):

> Gizabanakoak hizkuntza baten kultur ingurunean duen hizkuntz esperientzia zabaldu ahala, hasi familia-hizkuntzatik eta gizarte-hizkuntzaraino, oro har, eta beste herri batzuetako hizkuntzetaraino gero (izan eskolan edo unibertsitatean ikasiak, edo zuzeneko esperientziaren bidez ikasiak), hizkuntza horiek eta kultura horiek ez ditu adimeneko gune berezietan gordetzen; aldiz, komunikazio-gaitasun bat garatzen du, hizkuntz arloko ezagutza eta esperientzia guztien bidez eta hizkuntzen arteko harremanaren eta elkarreraginaren bidez (EEMB, 2005, 24. or.).

Gaur egun, oro har, plurilinguismoak irudi ona du, izan ere, azken ikerketak frogatzen ari dira elebitasunaren onurak handiagoak direla kalteak baino –ondorio txarrak testuinguru esperimentalean bakarrik aurkitu izan baitira norbanako mailan (Antón, Duñabeitia, 2016)–.

Eleaniztasunaren gaineko jarrera positiboa hartzen duen ikuspegiari paradigma-aldaketa deitu zion EEMBak, baina argitu ere egin zuen ikuspuntuak ekarriko zituen ondorioak neurtu eta ekintzetan islatu gabe zeudela (2001ean); eta gaineratu zuen Europako Kontseiluak hizkuntzen esparruan diseinaturiko programa berrien helburua hizkuntza irakaskuntzan diharduten eragile guztiei eleaniztasuna sustatzeko tresnak eskaintzeko baliagarri izatea dela. BLaren eta eleaniztasuna sustatzearen arteko lotura ezarri zen horrela. Bitartekotza-jarduera horiek nola landu daitezkeen aztertuko dugu jarraian, helduen bigarren hizkuntzen irakaskuntzari dagokionez, euskararen kasuari erreparatuz.

4. JARDUERAK HIZKUNTZA-GELAN

Ikusi dugun bezala, bitartekaria pertsona eleaniztuna da (edo errepertorio aniztun baten jabe), eta rol sozial bat jokatzen ari da. Horrenbestez, bitartekotza-jarduerak integratuko dituen irakaskuntza-eredu bat balioestea ez da batere harrigarria; izan ere, Markoak esaten du "ikasleei eleaniztasunaren gaitasuna garatzeko aukera eman behar zaiela"[3]; baita ere honako hau: "hizkuntz ahalmen guztiak bilduko dituen hizkuntz errepertorio bat osatzea da helburua" (24. or.).

Eleaniztasuna sustatzeko bitartekotza-jarduerak irakaskuntzan, oro har, kontuan hartzea ondo dago; baina, hizkuntzen gelari gagozkiola, nola landu eta praktikatu daiteke hain desiragarria den konpetentzia hori? Bestetik, konpetentzia lantzeak ekarri behar al du derrigorrean ondorio logikotzat ikaslearen hizkuntza (H1) erabiltzea gelan? Wilkins-en esanek (zenbateraino erabili behar dugun ikaslearen ama hizkuntza erabakitzeko orduan, kontuan izan behar dugu harekin ematen dugun denbora atzerriko hizkuntzarekin ematen ez dugun denbora dela), 1971n, jadanekotasunik galdu al dute 2019an?

Aurreiritzi hutsa izanik ere, indarrean dagoen irakaskuntzako eredu komunikatiboari jarraikiz, ez badugu uste nahitaez "sartu" behar denik sistematikoki ikaslearen hizkuntza gelara, baina, halere, komunikazio-modua landu nahi badugu, Trovatore-ren irizpideari jarrai diezaiokegu, berak iradokitzen baitu konpetentzia jarduera intralinguistikoen lanketa lehenetsiz lor daitekeela:

> *En el marco de las clases de lengua extranjera, las actividades de mediación de tipo intralingüístico se revelan como las más idóneas para favorecer la competencia lingüística y comunicativa de los estudiantes, tanto desde una perspectiva escrita como oral. Nuestra afirmación se justifica a raíz de la importancia de fomentar una batería de destrezas lingüísticas sin hacer necesariamente recurso a la L1 de los aprendientes. Se trata, pues, de llevar a cabo actividades de mediación en el marco de la lengua objeto de aprendizaje, lo cual implica un hondo proceso de reflexión en torno a los mecanismos que rigen el funcionamiento de la lengua estudiada* (2015, 174. or.).

EEMBak berak argitu du, eskalak eta deskribatzaileak eman dituen Ale Osagarriko sekzioan, bitartekotzarako A eta B hizkuntzak –H1 eta H2 terminoak erabiltzea saihesten du– berez hizkuntza desberdinak izan daitezkeela edo hizkuntza bereko bi aldaera edo erregistro, eta, era horretan, bidea ireki du ikuspegi zabalago bat izateko gaiaren inguruan –eleaniztasunaren gaia gainditiz–. Bestetik, Ale Osagarrian, Markoak berak adierazi du ikasleen beharretara bideratutako irakaskuntzak H2ren erabilera estentsiboa inplikatzen duela.

Beraz, zenbait autorerekin batera, bitartekotza konpetentzia bera osatzen duten mikrotrebetasunak jorratuz landu (praktikatu) daitekeela baieztatu daiteke: de Arriba Garciak eta Cantero Serenak (2004), ahozko eta idatzizko trebetasunei dagokienez, zenbait mikrotrebetasun edo abilezia zerrendatu zituzten:

Bitartekotzako ahozko mikrotrebetasunak.

- Laburtu / sintetizatu.
- Parafraseatu (birformulatu diskurtso konplexu bat beste hitz edo adierazpen batzuekin ulergarriago egiteko).
- Iruzkindu.
- Bitartekotza egin.
- Negoziatu.
- Interpretatu (hizkuntzen arteko transposizioa egitea).

[3] Eleaniztasuna lortu daiteke, EEBMaren arabera (24. or.): Ikastetxe batean edo hezkuntza-sistema jakin batean eskaintzen diren hizkuntzak dibertsifikatze hutsarekin, ikasleek atzerriko hizkuntza bat baino gehiago ikas dezaten bultzatuz, edo ingelesak nazioarteko komunikazioan duen nagusitasuna murriztuz.

https://doi.org/10.54512/JQZI1848

Bitartekotzako idatzizko mikrotrebetasunak.

- Laburtu / sintetizatu.
- Parafraseatu.
- Aipatu (testu bat erreproduzitzea ulergarriagoa bihurtzeko).
- Itzuli.
- Iruzkindu.
- Egokitu (testu bat moldatzea irakurlearen maila eta ezaugarrietara).

Horrez gain, Trovatok –gaztelania atzerriko hizkuntza gisa irakasten den gela buruan izanik– bitartekotzako konpetentzia ikasgelan lantzea helburu duten hamar ekintza deskribatu ditu (390. or.): testuak laburtzea; testuak parafraseatzea; gako testualak atzematea; giltza-hitzei antzematea; birgaitze lexiko eta semantikoko ariketak; clozinga; testuen ahozko itzulpenak; irakurketa mailakatuak; inprobisazioa lantzea, eta eztabaidak. Hamar jarduera horietatik bakar batean dago inplikatuta ikaslearen hizkuntza (H1).

Euskarari gagozkiola, gure hizkuntzaren irakaskuntzak inoiz baino sare trinkoagoa du, eta orpoz orpo jarraitzen diete irakastegien antolamenduak eta ikaste- eta egiaztatze-sistemak zein irakasleen prestakuntzak nazioarteko estandar aurreratuenei. HABE erakundeak didakteka joria du ikasle eta irakasleen esku[4]. Bertan, jarduera piloa dago sei mailetarako (formatu desberdinetan eta etiketaturik). Bitartekotzako konpetentzia mikrotrebetasunen bidez landu daitekeela esan dugunez, atala bukatzeko horietako zenbait hautatu ditugu erakuskari gisa, aditzera eman nahian konpetentzia hemen planteatu dugun moduan landu nahi duenak baduela nondik hasi. Hona hemen egin dugun hautaketa eta bitartekotzako zein mikrotrebetasun landu daitekeen haren bidez:

- Testuak laburtu. "Akordatzeke zahartzen ari gara". Maila C2-C1. Jarduera: audioa entzutea bi aldiz eta, ondo ulertu dela frogatzeko, laburtzea entzundakoaren mamia.
- Testuak parafraseatu. "Esateko moduak ematen du zeresana". Maila C1. Jarduera: artikulua irakurrita, idazlearen ikuspuntua adieraztea.
- Gako testualak atzeman. "Bortxaketa San Telmon".Maila C2. Jarduera: testua laburtzea eta atalak aztertzea.
- Hizkuntzak partekatzea. "Begoña Tisera eta Dylan Inglis: euskara atzerritik". Maila B1. Jarduera: egin gelan zeure buruaren aurkezpena dakizun beste hizkuntza batean.

Beraz, ikusi dugunez, bitartekotza osatzen duten mikrotrebetasunak ez dira ohiko irakasplanteamentutik kanpo gelditu inola ere, konpetentzia integratzailea izanik –besteen batura soila ez izanik ere– azaleratu behar baitzuen nola edo hala.

5. ONDORIOAK

EEMBak, norbanakoaren hizkuntzen erabilera sozialaren ikuspegi positibo jakin batez, bitartekotza-jardueren garrantzia aurkeztu, eta haiek goratu ditu. Gainera, bitartekotzarako eskalak eta deskribatzaileak eman berri ditu Ale Osagarrian: 19 eskala testuen, kontzeptuen eta komunikazioaren bitartekotza-jardueretarako, eta bost eskala bitartekotza-estrategietarako [5]. Gure artean, helduen bigarren hizkuntzen irakaskuntzan eta mailen ebaluazioan horrek izango duen eraginaz ezer aurresateko goiz da oraindik, eta jarduera-mota hori orain bertan baino ageriago egongo den etorkizunak esango du –edonola, 2018ko abenduaren 22ko 1041/2017 Errege Dekretuak hizkuntza eskola ofizialentzat nahitaezko bihurtu du bitartekotza-jardueren lanketa–.

[4] http://www.ikasbil.eus/web/ikasbil/home
[5] EEMB bitartekotzarako eskalak eta deskribatzaileak sortzeko egindako aurrelanetako batean (… *Developing illustrative descriptor of aspects of mediation for the CEFR*) 50 inguru zerrendatu zituen eta lau multzotan sailkatu: testu baten bitartekotza, kontzeptuen bitartekotza, komunikazioaren bitartekotza eta bitartekotza-estrategiak.

EEMBaren Ale Osagarriaren egileek adierazi dute espero dutela bitartekotzako deskribatzaileak zerrendatu izanak zabalduko duela hizkuntza-gelan erabilitako jardueren tipologia eta balioztatzenago dela erabiltzaileak/ikasleak garabidean dituen bitartekotzako baliabideak, ikasleen egoera gero eta aniztunagoa baita hizkuntza-errepertorioei begira –gogoratu behar da bitartekotza eleaniztasuna sustatzeko baliabidetzat hartzen dela eta alderdi hori begietsi zuela Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak–. Bestetik, ez dugu zalantzarik eskalak eta deskribatzaileak eman izanak lagunduko duela curriculumak, ebaluazio-tresnak eta material didaktikoak prestatzeko orduan, hizkuntza-modu hori lantzea erabakiz gero; baina EEMBaren jarrera ez-preskribatzailea (bertan adierazitakoak ez dira lotesleak) denez, curriculum-egileen, irakasleen eta ebaluatzaileen (lan egiten duten erakundeen erabakiei erantzunez[6]) esku egongo da hausnartzea norainoko sarbidea ematen dioten haien egitekoan komunikazio-modu berriari, baita ere EEMBaren deskribatzaileak zenbaitetaraino diren erabilgarri eta, hala badagokio, haietako zeintzuk diren egokiago irakaskuntzaren ikuspegitik.

Bestaldetik, Euskal Herriko hizkuntza-ikasle helduen tipologiak gainetik begiratuta ere, helduen euskararen irakaskuntzan, ez da oraingoz ausarkeria, ziur asko, esatea bitartekotza-jarduerak gela barrura eramateak ez duela askorik aldatuko euskarako gela-dinamika eta ez dela sistematikoki joko H1ra, salbu etorkinez osatutako taldeetan zein ikasle-multzo berezientzat antolatukoetan (Ertzaintza, Justizia, Osakidetza, etab.) zeinetan bitartekotzako jardueren beharra azpimarragarriagoa izan daitekeen. Oinarrizko eta Erdi mailako Hezkuntza Arautuan, aldiz, gure erkidegoaren osaera gero eta aniztunagoa kontuan hartuta (etorkin-kopuru gero eta handiagoa), hizkuntza bitartekotza-jarduerek toki gehiago izan dezakete curriculumean zein ebaluazio-moduetan.

[6] Esate baterako, 2018ko abenduaren 22ko 1041/2017 Errege Dekretuak Hizkuntza eskola ofizialetako bitarteko mailarako eta maila aurreratuetarako curriculumaren barruan bitartekotza-jardueren lanketa (jarduerak zein ebaluazio-irizpideak) ezarri du. https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2017-15367

Bibliografia

Aipatua

Antón E. eta Duñabeitia J. A. (2016). Elebitasuna, bi hizkuntza hitz egitea baino gehiago. *E-Hizpide, 89*. Hemendik eskuratua: http://www.ikasten.ikasbil.eus/pluginfile.php/1945003/mod_habecms/doc_attachment_eu/1878/H89_Anton%20eta%20Du%C3%B1abeitia-1.pdf

Coste D. eta Cavalli M. (2015). *Education, mobility, otherness. The mediation functions of schools*. Council of Europe. Hemendik eskuratua: https://rm.coe.int/education-mobility-otherness-the-mediation-functions-of-schools/16807367ee

De Arriba García, C. eta Cantero Serena F (2004). La mediación lingüística en la enseñanza de lenguas. *Didáctica (Lengua y Literatura) 16*, 9-21. Hemendik eskuratua: http://revistas.ucm.es/index.php/DIDA/article/view/DIDA0404110009A

Europako Kontseilua – HABE. (2005, argitalpena euskaraz) (2001, frantses eta ingeles bertsioak). *Ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoa*. Hemendik eskuratua: http://www.ikasten.ikasbil.eus/pluginfile.php/1945003/mod_habecms/doc_attachment_eu/51/europako_markoa.pdf

Europako Kontseilua (2018). *Common European Framework of Reference for Languages: Learning, Teaching, Assessment Companion Volume With New Descriptor*. Hemendik eskuratua: https://rm.coe.int/cefr-companion-volume-with-new-descriptors-2018/1680787989

Trovato G. (2015). *Didáctica de la mediación lingüística: retos y propuestas para la enseñanza del español como lengua extranjeraen contextos italófonos*. [Doktore-tesia]. Universidad de Murcia. Hemendik eskuratua: https://digitum.um.es/xmlui/handle/10201/43526?mode=full

Wilkins D. A. (1974). *Second-Language Learning and Teaching.* London: Edward Arnold

Osagarria

Alonso-Pérez R. eta Sánchez-Requena A (2018). Atzerriko hizkuntzak irakastea ikus-entzunezkoen itzulpengintzako baliabideak erabilita: irakasleen hainbat ikuspegi. *E-Hizpide 93*. Hemendik eskuratua: http://www.ikasten.ikasbil.eus/pluginfile.php/1945003/mod_habecms/doc_attachment_eu/2139/eH93_Alonso_Sanchez-0.pdf

EPALE-Adult Learning in Europe (2016, irailaren 23a*). Brian North on the innovative aspects of the CEFR.* [Bideo-fitxategia]. Hemendik eskuratua: https://www.youtube.com/watch?v=erv-KdLSIZA

MacMillan Education ELT. (2018, apirilaren 20a). *Changes to the CEFR: Interaction & Mediation with Enrica Piccardo*. [Bideo-fitxategia]. Hemendik eskuratua: https://www.youtube.com/watch?v=kVtbE1xhFMc

Sánchez Castro M. (2013). La mediación en clase de ELE: una actividad potenciadora de la competencia plurilingüe e intercultural. In S. Borrell (koord.), *Plurilingüismo y enseñanza de ELE en contextos multiculturales: XXIII Congreso Internacional ASELE* (791-801 or.).

Sánchez Cuadrado, A. (2017). Bitartekotza interlinguistikoa eta itzulpen pedagogikoa. *E-Hizpide 91.* Hemendik eskuratua: www.ikasten.ikasbil.eus/mod/habecms/view.php/irakasbil/didakteka/bitartekotza_interlinguistikoa_eta_itzulpen_pedagogikoa?lang=eu

Stathopoulou, M. (2015). *Cross-Language Mediation in Foreign Language Teaching and Testing*. Bristol: Multilingual Matters.